

BALEIKE

KAULDI ODRIUZOLA

**ESKUBALOIAREN
GAILURREAN**



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

469€

A+++

8Kg

BEKO
DHA8512RX

629€

8Kg

A+++

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

BOSCH
WTW87641ES

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

8Kg

A++

529€

BOSCH
WTR85V90ES

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

MANTXAK
KENTZEKO
ARKATZA
OPARI

8Kg

A++

529€

AEG
T7DBK841

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

A+

8Kg

449€

BALAY
3SB285B

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

B

7Kg

319€

BALAY
3SC871B

Lehorgailu
denboraldia

Ordaindu
12 hilabetetan
interesik gabe



TIEN 21

www.endaño tazumaia.com



BALEIKE 292

2019-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 4 | Hitz tantak Izaskun Urbietza Esnal
<i>Osa+Mujika</i> | 28 | Bazkide kluba |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Oier Azkue
<i>Nudibrankioak</i> | 30 | Plazan bazan |
| 9 | Gutuna Rafael del Pilar
<i>Gernikako Arbola</i> | 33 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Ama, aita. Aspertzen ari naiz</i> |
| 10 | Hainbat aburu Juanjo Álvarez
<i>Herriarren boterea zinismo
politikoaren aurrean</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena Asier
Hilario Orus
<i>Harriz harri, mendiz mendi; Pirinioen
historia ezkutua</i> |
| 11 | Errematea Jose Castillo
<i>Harresi ikusiezinak</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Julian Rubio Urbietza, zumaia bat
Australian eta munduan</i> |
| 13 | Elkarrizketa Jabi Gonzalez Toston
<i>Kauldi Odriozola: Momentua
gozatzen jarraitu nahi dut eta
egunen batean Bartzelonarekin liga
lehiatu</i> | 42 | Kultura Maria Maya Manterola
<i>Gordetakoak bistara</i> |
| 19 | Erreportajea Juan Luis Romatet
<i>Lasuna, aurreiritziek kateatutako
arraina</i> | 43 | Agenda |
| 24 | Erretratua Julen Aperribai
<i>Alfonso Iraundegi, ardo banatzailea</i> | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Belaunaldi berriak izendatzen</i> |
| | | 45 | Nire txanda Ibon Manterola
<i>Klarinete Maratoia: atzera begiratu
eta...</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Artisauen ordua</i> |

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu z/g. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Izaskun Urbietza
Maria Maya Manterola

Diseinu arduraduna

Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
**Administrazio
arduraduna**
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Zumaiko Udala

k
kutxabank

Osa+Mujika

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Suddenly I, II eta III piezak egin ondoren, proiektu berriarekin dator Osa + Mujika bikotea:

Kenophobia. Biak piezako zuzendariak izateaz gain, Jaiotz Osak dantza egingo du eta Xabier Mujika eszenografiar arduratuko da. Azaroaren 16an estreinatuko dute Donostiako Gazteszenan, 20:00etan.

Zer proposatzen duzue pieza honetan?

Jaiotz: *Suddenly*rekin konparatuta, guztiz lan ezberdina da. Hasteko, beste lanetan ez bezala, hiru dantzari egongo gara eszenan. Kenofobiak esanahi du espazio hutsekiko fobia izatea, eta pieza honetan, huts sentrazioa lantzen egon gara, bai espazioan, bai norbere barnean.

Xabier: Obra festa batean hasten da, eta festa hori bukatzean gelditzen den sentrazio huts hori azaldu nahi izan dugu; hau da, espazio hutsa bera, baita bakoitza gelditzen den bere barneko huts sentrazioa ere.

Jaiotzez gain, beste bi dantzari egongo dira obran.

J: Raymond Naval eta Oihana Varela. Interpretatzen dugun pertsonaia bakoitzak bere ezaugarriak izango ditu, eta guztiek beren hustasuna adieraziko dute. Amaieran hori nola menderatzen duten ikusiko da.

Nolakoa izango da eszenografia?

X: Kenofobia bera gaitzat hartuta, aldeko eta kontrako puntuak bilatzen saiatu naiz. Hau da, jantziekin kenofobiari kontra egin diot kolore eta forma berriekin. Exagerazioa bilatu dut. Aldiz, eszenografian huts sentrazio hori indartu dut.

Biok zarete zuzendariak, baina oholitza gainean Jaiotz egongo da. Kanpoko begiek zer ikusten duten jakitea garrantzitsua da?

J: Beharrezkoa da beste begi batzuk egotea. Ni dantzatzen aritzean, beste dantzariei begira eta zuzentzen ibiltzen naiz entseguetan, baina sistema hori ez da oso ona. Horregatik, Xabierren iritzia garrantzitsua eta beharrezkoa da. Gainera, oso interesgarria da bera ez etortzea dantza mundutik, beste ikuspuntu bat duelako.

Baduzue obra bat estreinatu aurreko bertigorik?

X: Pixka bat bai. Azkenean, uste dugu bai mugimendu, bai jantzien aldetik arriskatzen ari garela. Horregatik, agian ulertuko ez dela ere pentsatu dugu. Hala ere, gure lana ohiz kanpoko izatea positiboa dela iruditzen zaigu eta hori ere jendeari gustatuko zaiola.

J: Osa + Mujika proiektu pertsonal hau hasi genuenean, gure lehentasuna zen benetan guk egin nahi genuena egitea. Bide hori hartu dugu eta pozik gaude. Horregatik, ez dugu sartu nahi gure obrak salduko diren edo ez dinamikan. Proiektu horrek baldintzarik gabe eta askatasunez lan egiteko aukera ematen digu. Funtzionatzen dugula ikusi dugu eta filosofia horrekin jarraitu nahi dugu: egin nahi duguna egin eta arriskatu.

Dantza garaikidea da zuen estiloa. Zer nolako

ikusgarritasuna du dantza mota horrek gizartean?

X: Ikusle gutxi dago. Donostian, adibidez, dantza garaikidearen emanaldien ehuneko handi bat Gazteszenan bakarrik aurki daiteke, eta askotan ikusle berberak gaude beti bertan. Sortzaileen aldetik, berriz, nahikoa mugimendua dagoela esan daiteke Euskal Herrian. Gipuzkoan batez ere, Dantzagunereren inguruan asko sortu da.

J: Euskal Herrian dantzari asko gaude honetatik bizi garenak, baina gurea mikromundu bat bezalakoa da eta gizarterako ez gara bisibleak. Hemen eta Espainia mailan lan pila bat egin behar da dantza arte bezala ezaguna egiteko. Horretaz gain, jendeak ere antzokira joateko ohitura hartu behar du. Izan ere, gure sorkuntzak jendearengana iristeko egiten dira eta batzuetan pena ematen du antzokiak erdi hutsak ikusteak. **Dantzagunea aipatu duzue. Dantzariei arnasa eman dio horrelako espazio batek?**

J: Dantzaguneari esker sortzeko espazio bat dugu, eta horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak ere Estatu mailan ez dauden dirulaguntzak ematen ditu. Azpimarratu behar da izugarrizko laguntza dugula hemen eta dantza komunitatea oso ongi zainduta dagoela. Lan duina da gurea, eta hori ezin dute esan Estatuko dantzari askok.

X: Pena da, ordea, horrelako inbertsioa egin eta gero gizartean ez izatea horrelako isla. ■■■



Nudibrankioak

ARGAZKIA ETA TESTUA: OIER AZKUE

INSTAGRAM: OIER_AZKUE_PHOTOGRAPHY

Gure itsasoetan ez dira arrainak bakarrik bizi, hainbat bizidunen artean nudibrankioak aurki ditzakegu. Oskol gabeko molusku txikiak dira eta kolore biziak dituzte harrapariei pozoitsuak direla ohartarazteko. Argazkian ikus daitekeen nudibrankioa *Dondice banyulensis* motakoa da eta uste denez, espezie inbaditzailea da, jatorriz Mediterraneokoa. Kolore laranja bizia du eta zazpi zentimetroko luzera izan dezake. Argazkia Pasai Donibanen egina dago, Ekialdeko Bantxa izeneko murgilketan, 20 bat metroko sakoneran. ■■■

Datu teknikoak: Nikon D500; Nikkor 105 mm makro; Sea&Sea D2 flaxak; f/32; 1/200s; ISO320.





PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



679 10 31 67
aitamarijatejtea@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



Alkoholikoen senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61




tel.: 943-54 31 64
amataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)



www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OKI-EDER



Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bos.com



www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante



finés, francés, euskara, ingeles, espagnol, catalán, suomi, baski, catalán, francés, inglés, catalán, francés, catalán, inglés, baski, catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 63 06
bakun@euskalnet.net



Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basodivivet.com
www.basodivivet.com

Golez: 11-13 / Arratsalduak: 16-19:30 / Astelehen goizean eta tartaratuaren bitartean
Larrialdietarako: 605 72 87 07 Etaz ebeko zerbitzuak



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Egunko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

Gernikako arbola

TESTUA: RAFAEL DEL PILAR

Haren azpian deitzen zituzten Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusiak, beren legeak “usadio eta ohitura” batzuen arabera gobernatzeko, ondoz ondo idatzitako foru bildumetan idatziak. 1876ko uztailaren 21eko Espainiako Legeak abolitu egin zituen foruak, eta harrezkero Gernikako Arbola edo haritza Euskal Herriaren libertateen eta tradizioen ikur ikusgarriena bihurtu zen. “Gernikako Arbola” abestia gure herriaren nostalgiaren eta itxaropenen adierazpidea da, euskal libertateen himnoa; 1853an idatzi zuen Iparragirrek, eta horregatik epaitegiaren prozesatu ondoren, erbestera alde egin behar izan zuen.

“Zuhaitza lurraren bizitasunaren eta eskuzabaltasunaren ikurra da; indarraren eta babesaren irudia da; fruituetako haziei esker irauten duenez, betierekotasunaren ezaugarria da; erreferentzia da paisaian, eta urtaroen zikloa markatzen du; ernaberritzen den itxaropenaren irudi poetikoa da. Gernikako Arbolan antzinatik datozen euskal libertateen ikurra eratu du historiak, irauteko eta garatzeko gai diren haritzen belaunaldi gisa” (Guía de Lugares Simbólicos),

Gernikako haritzaren sinbolismo hori mundu osoko

zuhaitzei aplikatu dakieke, berdin mendikoei, basoetakoei... edo “Zumaiako herrigunekoiei”. Zumaiak galdu egin du bere Gernikako arbola. Aurreko udalbatzen utzikieriak eta eraginkortasun ezak hil zuten. Euskal sustrai sakonekiko erakusgai sinboliko kutunarekiko enpatia gabeziak hil zuen. Hiltzen lagundu zuen, halaber, lekuri egokienean ez jartzeak; izan ere, zegoen tokian karabana, ibilgailu astun, barraka... ugari biltzen dira, Gernikako Parkeko auzotar, animalia eta zuhaitzek poluzio akustiko itogarria jasan behar izaten dute, eta gure arbola non eta dezibelio zurrunbiloaren erdi-erdian. Hori gutxi balitz, gainera, txiringitoetan peluxeei eta bestelako jostailuei “bizia” emateko erabiltzen diren piletako askok Urola ibaiko basetan bukatzen dute, eta urak kutsatu egiten dituzte larriki. Hartzen al da babes neurrik?

Berriz ere gure Iparragirre maiteak adierazitako bideari helduko diot, bihotz-bihotzetik adierazitako bertso honen bidez:

Gernikako Arbola
Da bedeinkatua
Euskaldunen artean
Guztiz maitatua
Eman ta zabaltzazu
Munduan frutua
Adoratzen zaitugu
Arbola santua

Pena handiz adierazi nahi dut, bai, ez gaudelako geure



onenean, oso eskas gabiltzalako batez ere gure iraganeko edo duela gutxiko historiaren zati batzuk babesteko orduan. Izan ere, garrantzi handiegia ematen diogu “kultura materialista” alienatzaileari, eta aitzitik, bizkarra ematen diegu neurri handi batean gure orainaren oinarri eta argi izan ziren balioei.

Gure “Gernikako arbolak” hiltzen uzten baditugu, zer fruitu emango diote Euskal Herriari? Zer etorkizun izango du gure herriak?

Nik ez dakit; baina gure bardo ospetsuak ikusiko balu geure bihotzetan daukagun “udaberri isil” tamalgarri eta ezkorra, uste dut penaren penaz hilko litzatekeela... edo lotsaren lotsaz. ■■■



Herritarren boterea zinismo politiko

Procès-aren epaiketaren inguruan Auzitegi Gorenak hartutako erabaki bidegabe eta politikoak eragindako irakinaldi emozionalaren ondoren, politikak testuinguru katartikoa bizi du, eta hori gutxi ez eta orain, gainera, azaroaren 10erako hauteskunde-deialdia daukagu, ziklo politiko frenetiko bati amaiera emateko.

Salbuespen errespetegarri batzuk salbuespen, berriz ere kanpainen agerian geratuko dira Estatu mailako alderdi gehienetako buruzagien kultura politikorik eza. Histrionismo dialektikoa bandera elektoralizat hartuta, badirudi garrantzitsuagoa dela herritarrok hauteskunde egun erabakigarrian ez parte hartzea botoa mobilizatzea baino. Hala eta guztiz ere, herritar garen

neurrian, gure ordezkarien gainetik egon beharra daukagu, gizatasun demokratikoaren lezio bat eman eta alderdi bakoitza berez dagokion lekuan jartzeko. Horixe da, hain zuzen ere, gure indarra, gure kontrabotere izaera agerian jartzen duena.

Politika egiteko eta transmititzeko eredua, zoritxarrez, konfrontazioan zentratuta dago eta ideologien edo proiektuen inguruko benetako eztabaidarik gabe garatzen da. Zinismoa analgesiko sozial gisa lantzen dute, eta horrela ez dira gure gizarteko arazoak konpontzen. Errazena, gehien egiten dena da aurkariren orientazio politikoa demonizatzea batere funtsik eta oinarririk gabe. Eta orokortzea beti bidegabea bada ere, diskurtso politikoaren eta

horren aktoreen mailak sarritan erakusten dizkigute gidoi zorrotz eta itxi bati jarraitzen dioten solaskide lotuak eta zurrunkak.

Ezin dugu ahaztu hauteskundeak demokraziaren oinarritzko tresnak direla. Hauteskundeetan zer gertatzen den, boterea daukatenek arriskua daukate boteretik kanpo geratzeko. Une honetan ikusten da politikak mundu berezi batera garamatzala, non erantzun eta kontuak errendatu beharra dagoen, non boterea ez den absolutua berriz ere lortu beharra dagoelako, non politikak epeka baino ez dituen ematen aukerak. Herritarrok gara benetako kontrabotere demokratikoa.

Hain garrantzitsuak izanik, hauteskundeak ezin dira idealizatu demokraziak beste

HAUXE BAI JENEROA!



ikoaren aurrean

eskakizunik ez baleuka bezala. Demokrazia herritarrok geure ordezkariak bozkatzeko sistemara murriztuko bagenu, elektoralismoa botoak erakartzeko sistematzat edukiko bagenu, demokrazia azkenean populismo huts bihurtuko litzateke.

Ezbairik gabe, eskubide demokratikoak eta herritarren botoa legitimitate demokratikorako iturri garrantzitsu eta ukaezinak dira, baina ez dira nahikoak.

Beharrezkoa da demokrazia erreala lortzea, eta ez formala bakarrik, eta horrek egon behar du oinarrituta gobernu onean, gobernuaren kalitatean, haren jardunari kontrapisuak jartzean. Hautetsontziek ez die ematen botererik agintariei edozein erabaki hartzeko. Orain, hauteskundeak aurretik,

gogorarazi beharra dago demokrazia botoetan bakarrik oinarritzen den gobernu eredu bezala kontzebitzen badugu, sistemak berak azkenean gauza asko agindu beharra daukala eta aurrekontu aurreikuspen izugarriak gastatu agindutakoa betetzeko, eta nekeza dela horrek eragindako dinamika kontrolatzea.

Benetako kalitate demokratikoan, beharrezkoa da herritarren hezkuntzan sakontzea, beharrezkoa da herritarrek sisteman eta sistemarekin inplika daitezen indartzeko lan egitea; izan ere, bizi garen mundua eta gizartea gero eta zailagoa da gestionatzeko, demokraziak erronka berriei egin behar die aurre, eta politika egiteko lehengo erekin hori ezinezkoa da. ■

ERREMATEA



JOSE CASTILLO

Harresi ikusiezinak

Irailean ekin nion Madrilén masterra ikasi eta bizitzeko erronkari. Ordutik, hamarnaka pertsona eta txoko liluragarri ezagutu ditut. Egia esan, aurreiritziak aurreiritzi, jende ona leku guztietan aurki daiteke. Gehien harritu nauena Madrilek bizi duen klase polarizazio bortitza da. Ez da begi bistakoa, baina madrildarren bizi baldintzak guztiz baldintzatzen ditu.

Hegoaldearen eta iparraldearen arteko mugan bizi naiz, Campamento auzoan, Carabanchel goian kokatzen den langile eta etorkin auzo batean. Ez naiz kexu, Somosaguaseko Complutense Unibertsitateko campusa etxetik hamar minutura dut autobusean. Hori bai, autobusa hartu eta unibertsitatara bidean noala harresi ikusiezina igarotzen dut. Pozuelo de Alarcon herria zeharkatu behar baitut unibertsitatara iristeko, Estatuko Barne Produktu Gordina per capita tasa altuena duen herria.

Pozuelon bizi den biztanle batek ez du bere bizitzan ia inoiz erlazionatu beharko Carabanchelen edota Vallecasen bizi den norbaitekin. Ikusten ditu, baina ez dira existitzen, ez dira bere bizitzaren parte. Azaro honetan 30 urte beteko dira Berlineko harresia eraitsi zela. Ordea, gogoratu inork gutxiak aipatuko dizkizuen gure hirietako harresi ikusiezinekin. ■

BAILE. ARTISTA. MUSIKARI. AEK-KO BETERANO.

GO MUGURUZA UGARTE

ORIK EZ

ETA GITARRA ESKUAN DABIL MUNDUAN

@garbineubeda

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patzila Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 23
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Ekin
ERRIKINAK

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



ERTZ INFORMATIKA


Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marinel, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garoa

Carlos Cifredo - Antxoa Olaizola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



ilarfi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriando optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ ILEAPAINDEGIA

San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60



ORRAZTEGI
ZUMAI

943-86 20 83



Kauldi Odriozola, Irungo Artaleku kiroldegian, Bartzelonaren aurka jokaturako partida batean.

"Momentua gozatzen jarraitu nahi dut eta egunen batean Bartzelonarekin liga lehiatu"

KAULDI ODRIOZOLA ESKUBALOI JOKALARIA

Ia bost urte igaro dira jada, Kauldi Odriozolak (Zumaia, 1997) Pulporekin jubenil garaia amaitu eta Bidasoarekin sinatu zuenetik. Beste lau urte jarraituko ditu gutxienez bertan; izan ere, 2023. urtera arte berritu du kontratua orain gutxi.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston.** Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

runen igaro duen epean poz ugari izan ditu Zumaiaiko eskubaloï jokalaria gazteak. Aurtengoa denboraldi berezia du, gainera, ASOBAL ligan laugarren denboraldia izateaz gain, Txapeldunen Liga ari da eta jokatzeko. Hori gutxi ez eta Espainiako selekzio nagusira ere deitu dute. Argentinan izan berri da lau nazioen txapelketa lehiatzen. Bidaia egin aurretik jarri zuen *Baleikek* hitzordua Kauldirekin. ASOBAL ligako Cuencaren aurkako partidaren biharamunean.

Maila aparta ematen ari da Bidasoa txapeldunen ligan: C multzoko liderrak dira partida bakar bat galdu gabe. Espainiako liga gorenean aurrez jokaturako hiru denboraldiek bertan erabat egonkortzeko balio izan diote Kauldiri. Debuta egin zuen denboraldian, hasiberri onenaren saria jaso zuen, eta hurrengo bietan, ligako jokalaria onena izan da bere postuan, muturreko eskuin hegalean.

Bosgarren denboraldia duzu Bidasoan Pulpotik atera zinenetik. Nola ikusi duzu zure garapena epe horretan?

Oraindik gaztea naiz, baina dagoeneko ez naiz 18 urterekin iritsi zen umea. Helduagoa naiz. Denboraldiz denboraldi neureganatu dudana esperientziak lagundu dit horretan. Maila amateurretik abiatuta, profesional jokatzera pasa nintzen. Zilarrezko mailan hasieran, baina asko ikasi nuen lehen denboraldi hartan. Pulpon txikitatik hegaleko jokalaria (lateral) izatetik, muturreko hegalean (extremo) jokatzera pasa nintzen. Jaurtiketa zen nire gabezia handiena, ez negoen ohituta. Horixe landu behar izan nuen entrenamenduetan saltoarekin batera. Orain hegalean hasi naiz berriro ere minutuak izaten, eta, egia esan, bi postuetan nago eroso.

Pertsona modura aldatu da Kauldi?

Nik baino, nire inguruak hobeto erantzungo lioke galdera horri, agian. Hala ere, uste dut, Zumaiaetik atera zen pertsona bera naizela, langilea. Adinean aurrera egin dudana heinean, aldatuko nintzen noski, baina esango nuke gazte baten garapen arrunta izan dudala. Uste dut orain arte emandako urratsak eta hartu ditudan erabakiak egokiak izan direla. Presaka ibili gabe hartutakoak.

Eta nolakoa zara aldagelan? Talde gaztea duzue, bost jokalaria besterik ez 30 urteak beteta dituztenak.

Duela gutxi arte taldeko gazteena nintzen, eta baloiak eramatea tokatzen zitzaidan, besteak bete. Orain, libratu naiz [barrez]. Dena den, beti egon naiz eroso taldekideekin, bat gehiago naiz.

Oso harreman ona dugu guztiok eta gustura nago aldagelan dugun giroarekin. Txantxa asko egiten diogu elkarri bidaietan zehar eta entrenamendu aurretik zein gero dezente gara kafea hartu edo afaltzeko elkartzeko garenak. Ez dakit ASOBAL ligako beste talde batzuetan zer nolako harremana izango duten jokalarien artean, baina esango nuke gure aldagela dela giro onenetakoa duena alde horretatik. Hori jokatzeko orduan ere islatzen da. Guztiok helburu bera dugu, taldeak partida irabaztea. Norberak sartzen duen gol kopuruak ez du garrantzirik.

Adinari dagokionez, uste dut taldea oso ongi konpentsatuta dagoela. Zaharrenak diren jokalaria horiek garrantzitsuak dira oso. Esperientzia handia dute eta momentu zailetan lasaitasuna transmititzen digute.

Orain gazteena ez bazara ere, gazteenetarikoa izaten jarraitzen duzu. Era berean, taldean denbora gehien daraman jokalarietako bat zara, eta kanpotik lider itxura transmititzen duzu. Partidak aldapan gora jartzen direnean ardurak hartu eta taldea bizkarrera botatzen duenetakoa, lehiakorra. Hala sentitzen zara?

Horrelako momentuak gustatu egiten zaizkit, egia esan. Ez naiz kontsideratzen momentu erabakigarrietan atzera egiten duen jokalaria bat. Dena den, jokalaria guztiak gara garrantzitsuak. Ez dut uste ni naizenik partida berdinduta doanean ardura hartzen duena beti. Askotan niri egokitu zait, bai, baina une horretan jokatzeko ari den edonork har dezake.

Pasa den denboraldian inflexio puntua izan zuen klubak. Bigarren gelditu zineten ligan, ezustekoa emanda, Bartzelona ahalguztidunaren atzetik. Liga irabaztea bezala da hori, ezta?

Egunen baten Bartzelonarekin liga lehiatu nahiko genuke, baina gaur egun duten mailarekin hori oso zaila da. Partida guztiak irabazten dituzte denboraldi guztietan, eta esan daiteke haien atzetik sailkapenean bigarren geratuta “gure ligako” txapeldunak izan ginela. Inork ez zuen espero, ezta guk ere. Aurreko bi denboraldietan taula erditik behera geratu ginen eta berrirako bagenekien talde ona osatu genuela. Denboraldi aurrean eta lehen itzulian maila ona erakutsi genuen, baina ez genekien noraino iritsi gintezkeen. Gure aukeretan sinesten genuen, baina ez genuen espero amaierara arte bigarren postuari eustea. Defentsa aldatu genuen batez ere, eta izan zuen bere emaitza [707 gol jasota, gutxien jaso zituen izan zen Bidasoa, Bartzelonaren aurretik].





Odriozola erasoko jokaldi batean.

Motzean

Bidasoa ez den talde bat?

Bartzelona.

Artaleku ez den jokaleku bat?

Leon.

Jokalari gogokoena edo erreferentea?

Bat baino gehiago, jokalar askotan fijatzen naiz. Txikitan, gehiena, Mirza Dzomba.

Eskubaloiaz gain gogoko duzun beste kirolen bat?

Bodyboarda.

Hobby edo zaletasun bereziren bat?

Itsasoarekin erlazioz atutako edozer.

Selekzioarekin edo Bidasoarekin bidaiatzeari ezagutu duzun herrialde edo hiri gustukoena?

Göteborg eta Copenhagen.

Betetzeke duzun ametsik?

Espainiako selekzio absolutoarekin txapelketa nagusiren bat jokatzea (Europakoa, Mundukoa edo Joko Olinpikoak), eta Bidasoarekin tituluren bat irabaztea.

Bigarren postu haren ondorioz Bidasoa Txapelaldun Liga itzuli da 24 urteren ondoren. Nolako esperientzia ari da izaten?

Datorren denboraldirako txapelketaren formatua aldatuko dute eta talde gutxiago izango dira (16 besterik ez, aurretik 28 dira). Bederatzi liga nagusietako txapelaldunek jokatuko dute eta aukera gutxiago izango dira gainerakoentzat. Gurean Bartzelona edukita, pasa den denboraldian bigarren geratu eta gonbidapena jasotzea zen Txapelaldun Liga jokatzeke geratzen zen ia aukera bakarra. Bete genuen eta esperientzia bikaina ari da izaten. Irunen zein kanpoan jokatu ditugun partidak ezberdinak izan dira. Beste maila batean ari zara lehiatzen eta Europa osoan zehar bidaiatzen. Gainera, orain arte ez dugu partida bakar bat ere galdu eta gu zein zaleak itxaropentsu gaude. Gozatzen ari gara. Hala jarraitu nahi dugu.

Txapelaldun Liga jokatzeak badu bere alde txarra ere. Asteaz bi partida jokatu behar dituzue orain, eta, beraz, denbora libre gutxiago duzue. Nola daramazu hori?

Ikasketei tartea eskaintzeko arazo gehiago ditut aurretik eta Zumaian denbora gutxiago pasatzen dut. Partida, bidaiak eta entrenamenduekin etxetik kanpo denbora asko pasatzen dut eta lagunekin ez naiz lehen bezainbeste egoten. Urriaren azken asteburuan bazirudien aspaldiko partez lau egun izango genituela jai, baina Espainiako selekzioaren deia jasota, orduan ere atsedetik ez, azkenean. Beste bidaiak bat, Argentinara kasu honetan Lau Nazioen txapelketa jokatzea, Polonia, Errusia eta etxeko selekzioaren aurka jokatu genuen. Baina, tira, nahiago dut jai ez izatearen arrazoia hori izatea. Azken batean, pozgarriak dira horrelako deiak eta uste dut merezi duela aurretik bizitzen ari naizen esperientziak.

Jokalari profesionalek horrelako "sakrifizioak" egin behar dituzue sarri, kanpotik bestela ikusten bada ere, ezta?

Askok esan didate inbidia didatela kirol jakin bateko jokalar profesionala izateagatik. Niri eskubaloia gustatzen zait, eta momentu honetan horretatik bizi naiteke. Zentzu horretan, zortekoa naiz oso. Baina egia da profesionalki jokatzea edo afizioz ez dela gauza bera. Arduraz handiagoak dituzu. Egun txarra izan arren, ondo jokatu behar duzu, eta partida txar bat egiteak ere beste garrantzi bat du. Profesionala zarenean buelta gehiago ematen dizkiozu huts egin duzun

jaurtiketa bakoitzari, adibidez. Prestaketa ere beste bat da. Astean bi partida jokatu guztietara heldu behar duzu fisikoki ahalik eta ondoen. Errekuperazio zein indartze ariketak egin behar ditugu astero, eta tartean bidaia luzeak ditugu. Gogorra egiten da azkenerako.

Kirolari profesionaleri gerta dakizuekeen txarrena min hartzea izan ohi da, lesio larri bat izatea. Hori saihesteko prebentzio lanak bereziki garrantzitsuak izango dira aipatzen duzun prestaketa horretan, ez al duzu uste?

Eskubaloia fisikoki kirol gogorra da, kolpe asko izaten dira. Gu ohituta gaude tarteka lesioak izatera eta minez jokatu behar izatera, ofizioaren parte da. Nik, zorionez, ez dut izan bost edo sei hilabetez jokatzea galarazten dizun belauna apurtzea edo sorbalda ateratzea bezalako lesio larriarik, eta hala jarraitzea espero dut. Pasa den denboraldian izan nuen orain arteko lesio larrienetako bat. Txorkatilako lotailu bat hautsi nuen eta sei bat astez izan nintzen jokatu gabe. Bizkorregi itzuli nintzen kantxara, eta kosta egin zitzaidan maila berriro ere hartzea. Partida ondorengo erredukuperazio lanek eta muskulua

indartzeko lanek asko laguntzen dute lesioak saihesten, baina zorteak ere jokatzen du bere papera. Askotan ez dago zure esku jauzi baten ostean gaizki zapaltzea, adibidez, eta postura txar batean erortze horrek lesio larria eragin dezake. Jokalari gazteen kasuan lesioekin zortea izatea garrantzitsua da oso. Ezagutzen ditut etorkizun oparoa aurreikusten zitzaien jokalaria, baina lesio larri batek euren garapena bertan behera utzi dutenak.

Etorkizuna aipatuta, non ikusten da Kauldi hemendik urte batzuetara? Pentsatu duzu inoiz kanpora ateratzea, atzerrira?

Momentuz oso gustura nago Bidasoan. Zaila litzateke toki hobea aurkitzea, etxean egoteko aukera dut, nire ingurukoengandik gertu, eta Txapeldunen Liga ari naiz jokatzen maila handia erakusten ari den talde batean... Guztia dut hemen. Eskaintza on bat helduko balitz, agian pentsatuko nuke, baina hasieran esan bezala, urratsak pixkanaka egitea gustatzen zait. Hemen ezin hobeto nago, proiektu honetan jarraitu nahi dut [gogoratu, 2023ra arte berriro berri duela] eta momentua gozatu. ■■■

ORDAINDU 3 HILABETETAN INTERESIK GABE

*Gertu bizi,
gertu erosi.*



GERTU

ZUMALAIKO MERKATARI & DOTALARI ELKARTEA



JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI Patxia Ebezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaittermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

kalari

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est. 2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beabide, 2 • Tel. 943 862 209

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Elengabeke garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar induristegia, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com

OLIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Kortia Induristegia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beabide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

Lasuna, aurreiritziek kateatutako arraina

Kutsatutako arraina izan da lasuna: ibaian behera urak ekarritako metal pisutsuek eta hondakinek kaltetutakoa, baita aurreiritziek gure sukaldeetatik kanpo utzi dutena ere. Aurrejuzguak haustea ez da inoiz lan samurra izaten, baina, itsasoaren egoera kezkarriaz jakitun, borroka horretan dabil azken urteotan Andoni Txintxilla sukaldari zumaiaarra. Arrain mota hau berreskuratu eta berriro gure menuetan sartzearen inguruan aritu gara hizketan.

Testua: **Juan Luis Romatet.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea eta Mikel Marin.

Frantsesek bakarrik jaten dituzte”, esaten ziguten gurasoek edota aitona-amonek Arranplako koskan eserita bertan mugitzen ziren arrain handiei begira geratzen ginenean. Altxa dezala eskua lasunei, edo korrokoi bezala ezagunak diren arrainei, palomitak, gozokiak edo bestelako litxarreriarik bota ez duenak. Edozer gauza uretara bota, eta arrainen arteko borrokari adi geratzen ginen. Gaur egun ere haurrek berdin egiten dute.

Ikusi bai, baina gutariko inork dastatu ote du lasunik? Zergatik ez dugu arrain hau gure sukaldeetara eramaten? “Hemen, Zumaian, lasuna betidanik jan izan da, eta errezetak ere badaude; hori guztia dokumentatuta dago. Baina aurreiritzi batzuk daude, eta...”, dio Andoni Txintxilla sukaldariak. Azken urte hauetan aurreiritzi horiei buelta eman, eta, bisigua, erreboiloa edo zapoa nagusi diren menuetan, lasuna eta deskarteko beste arrain mota batzuk sartzeko lanetan murgilduta dago Beheko Plaza jatetxean.

Lasuna *mugilidae* familiako arraina da. “Lasuna bezala ezagutzen ditugu guztiak, baina Zumaia inguruan hiru espezie daude. Haitzeko lasuna bezala ezagutzen duguna da bat, erriean ikusten duguna beste bat, eta, niretzat interesgarriena dena, chelon labrosus, edo hondoetako lasuna. Espezie bakoitzaren arabera, bata bestea baino gehiago hazten da, eta arrautzak edukitzeko denboraldia ere desberdina dute. Buzeatzaille batekin egiten dugu lan, eta ikusi dugu labrosusen arrabak onenean daudela oraintxe bertan”, dio.

Arrain urdina da lasuna, eta, duen koipe kopuruagatik, sardina handi batekin parekatzen du Txintxillak. “Omega 3 asko du. Lasunak



Botarga prestatzeko erabiltzen dira lasunaren arrabak.

"AURREIRITZIAK DITUGU IKUSI DITUGULAKO LASUNAK EDOZER GAUZA JATEN"

ARRAINEN HAZTEGIEKIN EKONOMIA SISTEMA ZIRKULARRA GARATUKO LITZATEKEELA USTE DU

bere karakterea du, bere usaina, eta parrilan prestatzeko osa ona da, nire ustetan. Koipe maila bateko arrainak oso onak dira parrilarako, eta txitxarroarekin eta berdelarekin bezala, lasunarekin ere hala gertatzen da”, nabarmendu du sukaldariak. Parrilara bakarrik ez, beste era batzuetara ere prestatu daitekeela dio. “Ketzeko ere oso arrain ona. Ketutan uste dugu arrain guztiek zaporea bera izaten dutela, ke zaporea, alegia. Guk beste sistema bat erabiltzen dugu, egur desberdinekin, eta arrainak bere zaporea mantentzen du, baina ke ukitu batekin”.


Hain arrain ona bada, zergatik ez dugu jaten, galde dezake norbaitek. Hor sartzen dira aurrez aipatutako aurreiritziak. “Aurreiritziak ditugu ikusi ditugulako lasunak edozer gauza jaten. Lasunak mundu guztiko portuetan daude, eta orojaleak dira. Botatzen diegun guztia jango dute: ogia, gozokiak..., eta kaka bera ere bai. Zumaian, araztegirik ez zegoen garaiko ur zikinetan elikatzen ziren. Lasun bat hartu eta analizatzen badugu, oraindik ere metal pisutsuen eta produktu kutsatzaileen aztarnak aurkituko ditugu. Baina behin lasun bat harrapatu nuen erriean, ireki nuen, eta ez zuen lehengo belztasun hura”, azpimarratu du.

Lasuna kontsumitzeko orduan ohiturek eta kulturek ere zerikusia dutela uste du Txintxillak. “Frantzian jaten dute, eta hemen inguruan harrapatzen duten itsasoko lasun ia guztia Frantziara eramaten dute. Mediterraneo guztian ere jaten dute: Grezian oso preziatua da, eta Sardinian eta Italia hegoaldean ere asko jaten dute. Iran da, adibidez, lasunaren ekoizle handiena. Aparte botargaren produkzioa dago. Lasunaren arrautzak lehortuta egiten den produktua da botarga. Kiloak 200 euro inguru balio dezake. Japonian eguzkitan lehortzen dituzte arrautzak botarga egiteko, eta 600 euro inguruan saltzen dute kiloak”.

Ezjakintasun edota aurreiritzi horiekin amaitzeko jende bat lanean dabilela dio. “Kontzientzia kontua ere bada. Nire lana, koherentzia baten barruan, lasuna beste edozein arrain bezala saltzea da. Merkea dela dio jendeak. Bada, agian sardinak baino gehiago balio du. Duen haragiagatik eta koipe mailagatik ketutako beste edozein arrairen mailakoa da. Haragi gogorra eta leuna du. Ketutako bakailaoa eta ketutako lasuna jarri, eta asko ez litzateke gai izango bien artean desberdintzeko. Madrilen proba bat egin genuen: ketutako lasuna jarri genuen, eta ia denek zioten zer bakailao ona zen. Esan genienean lasuna zela, harrituta geratu ziren”.

Lasuna eta deskarteko beste arrain mota batzuk –akula edo melba, esaterako– berreskuratzeak arrazoien artean itsasoaren jasangarritasuna dagoela dio Beheko Plaza jatetxeko arduradunak. “Arrantzarekin itsasoa agortu dugu dagoeneko. Uraren tenperatura igoeragatik beste arrain espezie batzuk sartu dira, eta arrainen denboraldiak ere aldatu dira. Txibi garaia dela esango dute, baina, agian, ez da txibirik izan aurten; ez nahi adina, behintzat. Sukaldari bezala ikusten dut oso selektiboak garela. Bisigua, erreboiloa eta zapoa nahi ditugu. Besterik ez. Baina arrain hauek beraien denboraldia dute, eta hemen bertako bisigurik ez dugu. Hemengo





Lasuna, Beheko Plaza jatetxeko sukaldean.

Lasuna Bilbora bidean

III. Bilbao Food Capital topaketak egingo dira azaroaren 25, 26 eta 27an Bilboko Ercilla Lopez de Haro hotelean. Gastronomiaren inguruko zenbait arlo jorratuko dituzte bertan topaketek iraungo duten hiru egunetan. Aurten txoko berezia zabalduko diete euskal sukaldari gazteei, eta parte hartuko dutenen artean Andoni Txintxilla bera dago. “Euskal sukaldaritzaren oraina eta etorkizunaren inguruan joango dira topaketa hauek. Esentzia berriak jaso nahi dituzte, eta, gure kasuan, itsasoaren berreskuratzeaz arituko gara. Gure jardueren inguruko 40 bat minutuko *showcooking* bat eskainiko dugu”.

Bost bat plater aurkeztuko dituela iragarri du: “Lasunaren arrautzak, itsas ogiak, itsas enbutidoak eta ketuak”. “Lan honetan zergatik gabiltzan ere azalduko dugu, non gauden eta zertan ari garen. Produktu batzuekin beste era batean lan egiteko aukera dagoela kontatuko dugu. Guretzat erakusleihor handi bat izango da; profesional asko izango da bertan, eta informazioa partekatzeko aukera emango digu. Gure proiektu berrirako espero dugu baliagarria izatea, justu oraintxe trantsizio prozesu batean gaude eta”.

bisiguaz hitz egiten dugu, baina ez; hemengo hiru bisigu izango ditugu gehienez, eta agian beste lau erreboilo. Eta hori bere denboraldian, martxo bukaeratik maiatzera bitartean”.

Itsasoen jasangarritasun lan honetan, Mutrikuko Kardala Akuakultura Eskolaren lana txalotu du Txintxillak. “Lasunaren hazkuntza prozesu osoan ari dira lanean, larba denetik heldua izatera artekoa. Kardalarekin elkarlanean nabil, eta ikasteko oso interesgarria da. Azken finean, gu, sukaldariak, kate horretako azken maila gara”. Itsasoen egoera kezkarriaz jabetun, arrain haztegiak sortzearen aldekoa da Txintxilla, baita lasunarenak ere. “Arrain hau orojalea izateaz gain, iragazlea ere bada: piszina batean beste arrain batzuekin kontaktuan jartzen baduzu, haien kakak ere irentsiko ditu; ur dena iragazten du. Gero, lasuna ur gazitik ur gezaraino mugitzen den arraina ere bada. Piszina batean ez litzateke itsasoko

Lasuna tomatetan

Osagaiak

- Tomate naturala
- Tipula
- Baratxuria
- Lasuna

Prestaketa

Lasuna garbitu eta xerratu. Beste aldetik, tipula eta baratxuria potxatu, ondoren tomatea bota bertara eta kozinatu. Azukrea, gatza eta piper beltza bota. Tomatea birrindu, kazuela batean jarri eta bertan jarriko ditugu lasunaren xerrak 8 minutu.

ura eraman beharrik izango, eta orojalea denez, dieta bat jartzea ere egongo litzateke. Adibidez, mikroalgen bidez elikatuta, arrainaren zaporea aldatzea egongo litzateke”.

Mutrikun egiten ari diren lan zientifikoari irteera ekonomikoa ematearen aldekoa da sukaldaria. “Baina nor dago prest horrekin lanean hasteko? Niri asko interesatzen zait, bestela arraina hegoaldeetik ekarri beharrean aurkitzen naiz eta, hemen arrantzatutakoa Frantziara eramaten dutelako gehienbat. Eta hori itsasokoa. Eta nik beste modalitatea nahi badut?”. Arrainen haztegiekin ekonomia sistema zirkularra garatuko litzatekeela uste du Txintxillak. “Jasangarritasuna nik uste hor dagoela. Lasuna hazten duenak lana sortuko du, eta arraina erosten duenak, kozinatutakoan, balio bat emango dio. Hor sartzen da, nire ustez, garrantzitsua den ekonomia zirkularra eta jasangarritasuna. Era berean, haztegi hauek bertan egitea ere garrantzitsua da. Cadizetik ekarri behar al dut lasuna? Zer zentzu du horrek? Nire ustez batere ez, eta horregatik, lasunarekin bezala, bertako beste arrain mota batzuekin ere ari naiz lanean. Gaur egun dozena bat mota arrain ditut ketuta. ■■■

Lasuna "cevichea"-n

Osagaiak

- Tipula gorria
- Martorria (zilantroa)
- Lima
- Gatza
- Piper gorria
- Piper berdea
- Soja
- Lasuna

Prestaketa

Lasuna garbitu eta zati txikitan jarri. Beste aldetik, barazki guztiak eta martorria txikitu. Lima eta soja gehitu, lasunari bota eta 10 minutu utzi jan baino lehen.



Lasuna tenpuran

Osagaiak

- Irina
- Garagar legamia
- Garagardoa
- Maionesa
- Zenbait belar (albaka, erle belar edo tomilloa...)
- Gatza
- Lasuna

Prestaketa

Alde batetik, irina nahasiko dugu legamia, gatza eta garagardoarekin. Egonean utziko dugu testura ez oso lodiarekin utzi arte. Bitartean, arrain zatitxoak ebaki, gatzatu eta lehenengo nahasketan bilduko ditugu, eta ondoren frijitu. Belarrak txikitu eta maionesarekin nahasiko ditugu.

Ardogintzan, mahastietatik urrun

Alfonso Iraundegi, ardo banatzailea

Ardoak urteekin hobera egiten duela dio esanak. Aspaldian ardoak kalitatean gora egin arren, behera egin du kontsumoan, Alfonso Iraundegi (Zumaia, 1960) ardo banatzailearen arabera. Lanbidearen inguruan mintzatu da *Baleikerekin*.

Testua: **Julen Aperribai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Ardoaren kultura deitzen zaio gero eta sarriago edari horrekin zerikusia duen edozeri; izan, agian, kontsumo hitzak izan dezakeen adiera itxuraz negatiboa ezkutatzeko; edo, izan, akaso, ardo kopak eztarritzeko ohitura kategoriaz igotzeko. Badu horretatik ardoaren inguruan eraikitako industriak. Alfonso Iraundegik itzulingururik gabe dio: “Ardoaren inguruan ergelkeria handia dago”. Bistakoa izanagatik, zentzu berezia du zehaztaper horrek, hark esanda. Izan ere, harreman estua du Iraundegik ardoarekin. Urteak daramatza herriko tabernak eta haietatik igarotzen direnen eztarriak ardoz hornitzen. Alta, apaltasunez mintzo da bere lanaz, ofizioaz propioa hitz egitera ohituta ez dagoenaren eran.

1980ko hamarkadako lehenengo urteetan hasi zen ardo banaketan, egun aritzen den leku berean, San Jose kalean. 1947 inguruan zabaldu zuen almazena haren aitonak, eta ondorengoekin hasi zen Iraundegi. “Gure osaba Fermin eta gure aita Alfonso hemen aritzen ziren, eta haiei laguntzen hasi nintzen ni. Udako egunak hemen igarotzen nituen”, dio, biltegi moduan erabiltzen duen lokalari begira. Ardo kaxak elkarren gainean pilatuta daude haren hormen artean. Ardoa da

kaxen barruan dagoena, baina beste edozer ere izan zitekeen, kaxaren kanpoaldeko irudiek erakusten dutenarengatik ez balitz. Bestelakoa zen lekuaren itxura duela hamarkada batzuk. Kupelak eta barrikak zeuden orain kaxak dauden lekuan. Hornitzailea batetik bestera ibili beharrean, tabernariak eta herritarrak etortzen ziren bertara ardoaren bila, Iraundegik azaldu duenez: “Ontziratut gabe saltzen zen ardoa. 3.000 litroko bi kupel, gutxienez, bagenituen. Jendea bere ontziarekin etortzen zen hona. Iturria ireki, ontzia bete eta bueltan joaten ziren”.

Tabernariak izaten ziren asko, baina bestelako herritarrak ere egun baino gehiago joaten ziren ardo bila biltegira, Iraundegiren arabera. Garai hartan, etxe gutxi izaten ziren bazkalorduan mahaian ardorik izaten ez zutenak. Kontsumoa handiagoa zen etxe barruan, baita kanpoan ere. “Gizonentzat sozializaziorako eremu naturala tabernak ziren, eta horietatik kanpo geratzen ziren emakumeak. Ardoaren bueltan elkartzen ziren gizonak, txikiteoan”, azaldu du Iraundegik. Ardo bantzaileak dioenez, lehen noiznahi egiten zen txikiteoa Zumaian: “Egunean bi aldiz ere egiten zen, hori lanegun normaletan: goizeko txanda amaitu ondoren eta arratsaldekotik ateratakoan”.



irrimarra



Garagardoak merkatuari buelta

Ardoa asko edaten zen, eta ez zegoen edaririk hari konpetentzia egiteko. Agertu ziren pixkanaka, ordea, eta bat, nagusiki: garagardoa. Haren merkaturatzeak eta zabalkundeak ardoaren kontsumoa jaitsi zuen. Ohiturak aldatu egin ziren, eta, negozioa ohitura berri horietara egokitu artean, ondorioak nabaritu zituela aitortu du Iraundegik: “Garagardoa indartsu sartu zen, eta bestelako edariak ere gehiago kontsumitzen hasi zen jendea. Nabaritu nuen beherakada salmentetan”. Eskaintza zabaldu eta bestelako edari batzuk saltzea erabaki zuten edari hornitzaile askok, euren lanaren mesedetan. Ordura arte bezala, ardoarekin lanean jarraitu zuen Iraundegik, ordea. Eusteko modukoa izan zuen beherakada, eta ez zuen lan egiteko moduan aldaketarik planteatu. Are gutxiago orain, krisialdi txiki hartatik urte mordoxka bat igaro eta garagardoaren kontsumoa erabat egonkortu denean. Bizitza duina diruaren gaintetik jarri ohi du, eta aski du horrekin, dioenez: “Lan eta esfortzu handia egin beharko nuke orain negozio eredia aldatu eta eskaintza gehiago egiteko. Niretzat denbora izatea eta lasai ibiltzea asko apreziatzen dut. Bizitzeko adina ematen dit oraingoz, eta horrekin gustura nago”.

Mundu lehiakorra


Ingurukoari gehiegi erreparatu gabe, bere-berean lan egitera ohitu da Iraundegi, urteetan ondutako errutina berari jarraika: “Goizetan banaketa egiten dut, eta tabernariei galdetzen diet ea zerbaiten beharrik baduten. Arratsaldean, bulegoko lan batzuk egin eta hurrengo egunean banatu beharrekoa prest uzten dut”. Upategi jakin batzuetako ardoa eskaintzen die tabernariei. Urteetan hornitzaile izan dituen berberekin egiten du lan, baina aldian behin ardoteги

berriren bati ardoa hartzen dio. Eskaintza murrizta baina segurua du, eta tabernarien beharrak asetzen ditu horrek. Edonola ere, ardoarena “oso mundu lehiakorra” dela dio. Upategien artekoa izaten da lehia, batez ere, baina baita, horren ondorioz, upategietako ardoa tabernetara eramaten dutenen artekoa ere. Herrian gutxi dira horretan aritzen direnak, baina onartu du mehatxua, izatekotan, herri barruko merkatuaren oreka aztoratzen dutenak izaten direla: “Ardoa saltzera jende asko etortzen da Zumaiara. Eskaintza handia dago, eta, azken urteetan ostalaritza arloan izandako gorakadarekin, eskaria ere bai. Batzuek edozer egiten dute bezeroak lortzeko”.

Turismoaren gorakadarekin, eta, horren ondorioz, ostalaritzaren indartzearekin, tabernetako bezeroen eskarietan ere eman da aldaketa. Ardo arrunta edanez tabernaz taberna ibili ohi zirenak gero eta gutxiago dira. “Ardo berezietara jotzen du jendeak, eta ez hainbeste

Alfonso Iraundegi Lopez

- **Adina:** 59 urte.
- **Ikasketak:** Aparejadore ikasketak hasi nituen Bartzelonan. Soldadutzara joan nintzen gero, eta, handik bueltan, hemen lanean hasi nintzen.
- **Ardo banatzailea ez banintz...** ez dut inoiz horretan pentsatu. Bizitzak eta beharrak ekarri naute hona.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** bizikletan ibiltzen naiz eta Pilatesera ere joaten naiz. Horrez gain, lagunekin kalean ibiltzea gustatzen zait.



txikiteora". Prezio altuagoko ardoak ohiko bihurtu direla uste du.

Prezioetan igoerarik ez izatea komeni zaio Iraundegiri: "Saldutakoaren ehuneko bat jasotzen dut nik. Prezioa igotzen bada, zailagoa da besteekin lehiatzea". Igoera nabarmenik ez da izan azkenaldian, ordea, baina azaldu du izaten denean ardo guztiei eragiten diela: "Pentsatzen dut upategiak elkarrekin ados jarriko direla prezioei dagokienez. Normalean, ardo guztien prezioak batera igotzen dira".

Kaleko kontsumoaren arabera da banatzailearen lana, eta lan gehiagoko eta gutxiagoko aldiak izaten ditu Iraundegik. Lan erritmo eramangarria izaten du normalean, eta konforme da horri eustearekin, esan digu Alfonso Iraundegik. "Negozioa mantentzea", beste erronkarik ez dio jarri nahi oraingoz etorkizunari. "Ez daukat anbizio handirik. Negozio honi helduko dion inor ez dut inguruan, eta, erretiratzean, uste dut hemengoa amaituko dela", azaldu du.

 **Mertxe Aizpurua**

 **Jon Iñarritu**

 **Gorka Elejabarrieta**



Bozkatu

ehbildu

Erabaki

BAIETZ!

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



On Gourmet: Ibon Manterola



Itzurun taberna: Nekane Lizarralde



Zelai talasoterapia: Libe Osa (bere
amak jaso zuen saria)

AZAROAK 4

Errigorako hiru otar.

AZAROAK 11

Antzerkia: Babesleku
arrotzak.

AZAROAK 18

Bi lagunentzako
afaria: Aita Mari
jatetxean.

AZAROAK 26

Antzerkia:
Erradikalak gara.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hilero.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:


Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45


Arrotzak Ibaietan eta erreketan aurkitu beharko ez genituzkeen elementu gehiegi dago paisaia honetan (gomazko ahatez gainera, gutxienez 16). Ikusten al dituzue?

Ibaietan eta erreketan aurkitu beharko ez genituzkeen elementu gehiegi dago paisaia honetan (gomazko ahatez gainera, qutxienez 16). Ikusten al dituzu?



Irudi engainariak

Hamahiru zati
hauetatik zortzi
goiko iruditik
hartuta daude
eta gainerako
bostak engainariak
dira, hau da, oso
antzekoak izan
arren, ez datoz bat
irudi nagusiarekin.
Identifika itzazu.



Pareak bai!

Hemengo elementu gehienak bikoiztuta daude. Batek, ordea, ez du parerik, eta beste bat hiru aldiz ageri da. Zein da bakana eta zein hirukoiztua?





Tatuajea

Maripurtzili ikaragarri gustatzen zaizkio tatuajeak. Hona hemen bere besoa. Eginiezazkiozu tatuajetxo batzuk.

Mezua

Iruditxo bakoitza dagokion hizkiaz ordeztu eta esaera zahar bat agertuko zaizu.




Hau da Hau!

Hona hemen Maripurtzilen hatz erakuslea. Marraz ezazu zerbait, bere hatz puntan orekan, eta izan dadila ikusgarria, sekulako trebezia baitauzka.



Itzala

Ikusten duzunez, Pelloziri eskolako lanak egiten ari da eta ez dago pozik. Baina hori alde batera utzita, zein ote da bere itzal zuzena?



Bota dadoa!

Zortzi dado hauek tranpati samarrak dira. Lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com



Talaraia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
taberna

Enbena kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73



ITAKUN
TABERNA

Izasterri, 3
tel. 943-86 52 89



TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Soltxibak, oilaskoak...
Garagardotegia aukeran

Ondarra plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com



UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantiaaltzariak.com



yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheko
943-14 32 78



Zalla
taberna

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA



ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax: 94301 61 26




Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Aleiz auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61



BALEIKEK
25 urte

zatoz gurekin ospatzera



BIYONA
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 • ZUMAIA
943-14 34 49
www.biyona.net

SUKALDEAK
Bainuak
ETXKO ALTZARIAK
LEIHOKAK
Keramika
GREMIEN KORDINAZIOA

Ama, aita. Aspertzen ari naiz



MIREIA CENTENO
PSIKOLOGOA

Negua, eguraldi txarra, asteburua, ordu asko etxean sartuta eta bat-batean, esaldi hau: “Ama, aita, aspertzen ari naiz”.

Gure seme-alabengandik askotan entzuten ditugun hitzak dira horiek. Eta ez ditugu gustuko. Deseroso sentitzen gara hori entzutean. Orokorrean emozio “negatibo” bezala izendatzen ditugun horiek ukatzeko joera garatu dugu gizartean, eta desagerraraztea da gure lehenengo helburua. Beraz, martxan jartzen ditugu hainbat estrategia hori lortzeko.

Baina txarra al da aspertzea? Aipatu dudan bezala, emozio batzuk ukatzeko joera dugu, eta hori arazo bat da gehienetan. Emozio guztiak dira beharrezkoak, denek dute helburu bat edo zeregin bat, eta, noski, kasu honetan aspertzeak ere bai.

Aspertzen garenean sormena, irudimena, arazoan konponketa eta beste hainbeste funtzio jartzen dira martxan. Gaur egun hezkuntzan asko azpimarratzen diren funtzio exekutiboak, alegia. Eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren hainbat tresna.

Beraz, lehenengo pausoa beti, emozio guztiekin, onartzea da. Aspertu egiten gara, haurrak aspertu egiten dira, eta hori ondo dago. Behin onartu dugula, aspermenak bere lana egiteko aukera izango du, eta aipatu dudan bezala, hainbat erreminta martxan jarriko ditugu.

Zein da gaur egungo arazoa? Batez ere teknologia eta berehala asetzeko beharra. Pantailak oso eskura ditugula, eta berehala asetzen gaituztela. Haurra aspertzen ari dela? Hartu tableta. Itxaron gelan? Mugikorra uzten diot lasai egoteko..., eta horrela hainbat egoeratan. Eta guk, heldu bezala, noski, berdina egiten dugu. Lehen, komunean, xanpuaren potea irakurtzen genuen, edo sabaiko zomorroak begiratu. Orain instagrama dugu. Ez diogu uzten geure buruari behar bezala deskantsatzen. Ahazten ari zaigu itxarotea zer den. Gure seme-alaben frustrazioa

**EMOZIO BATZUK
UKATZEKO JOERA
DUGU, ETA HORI ARAZO
BAT DA GEHIENETAN**

ezabatu nahi dugu lehenbailehen, pentsatuz frustratzea zerbait txarra dela. Eta ez. Batzuetan frustratzea beharrezkoa da gaitasun ezberdinak garatzeko.

Orduan, zer egin dezakegu? Haurren eskura material egokiak jarri: egongelan, logelan..., ikus ditzaten. Ez utzi gordeta armairuetan. Horrela, jarduera berriak bururatuko zaizkie.

Ez gehiegi mugatu esperimentazio jarduerak. Batzuetan oso ideia onak izaten dituzte, baina pereza ematen digu. Adibidez, tenperak ateratzea, kozinatzen hastea, zikintzea, euritan bustitzea...

Ahal badugu, beraiekin zerbait egiten hasi, gero beraiek jarraitzeko.

Ideien kaxa bat sortu: aspertuta daudenerako egin ditzaketen jarduerak idazten joan eta horiek kaxa baten barruan sartzen joan, gero behar dituzten momentuetan erabili ahal izateko.

Ez egin ezer. Utzi aspertzen, frustrazio momentu bat biziko dute eta garuna martxan jarriko da. Aurkituko dute egiteko zerbait. Aspermenak bere lana egingo du eta.

Batez ere, ez larritu. Aspertzeak onura asko dituela kontutan hartu. ■

Harritz harri, mendiz mendi; Pirinioen historia ezkutua

Pirinioak ez dira munduko mendi altuenak, baina geologiarentzat opari ederra dira. Konplexuak eta irisgarriak dira aldi berean; horregatik, mundu guztitik etortzen dira lur zientzien ikertzaile eta jarraitzaileak. Ederrak bezain interesgarriak direlako.

Testua eta argazkiak: **Asier Hilario Orus. Geologian doktorea. Geoparkeko koordinatzaile zientifikoa.**

Mendian geologia biluzik ageri da. Dena da superlatiboa. Paisaian dauden koloreak, testurak, formak, lerroak, hutsuneak... ezer ez dago ausaz kokaturik. Elementu horiek guztiak ondo finkatutako ordena baten barruan daude. Prozesu eta geometria berdinak eskala desberdinetan errepikatzen dira. Mendiaren argazki orokorra ulertzeko ezinbestekoa da begia detaile txikietan jartzea.

Baina, noiz eta nola altxatu ziren Pirinioak? Gaur egungo Pirinioak duela 40 milioi urte inguru sortu ziren, Iberiako eta Europako plakek talka egin zutenean. Bai, baina historia askoz ere konplexuagoa da. Arrokek esaten digutenari kasu egiten badiogu, Pirinioen erdigunean askoz ere zaharragoa den beste mendikate bat ezkututzen da, duela 300 milioi urte (Mu) sortu zen mendikate erraldoi bat!

Pirinioen sorrera 5 ataletan.

1) Iragan urrun bateko itsasoak eta mendi handiak (duela 500-260 Mu)

Pirinioetako lurraldea itsaso batean urperatuta zegoen, bi kontinente handiren artean: Laurasia (iparraldean) eta Gondwana (hegoaldean). Duela 300 bat Mu, talka egin zuten eta kontinente bakarra osatu zuten, Pangea izenekoak. Talkaren ondorioz milaka kilometroko mendikate erraldoi bat sortu zen. Orogenia Variskoa deitzen zaio geologian. Talka horren ondorio dira, adibidez, Vignemale, Infiernos, Garmo Negro, Posets edo Bachimala mendietan ikus daitezkeen kareharri, eskisto, arbel eta hareharri tolestuak. Kolore marroi iluna eta testura zakarra dute orotara mendikatearen erdigunean kokatzen diren mendi horiek.

Talka horrek sakonean sortutako presio eta tenperatura altuen ondorioz lurrazaleko arroka batzuk urtu egin ziren eta magma poltsa handiak sortu zituzten. Magma poltsa horiek



Posets-Espadas medietako toles ikusgarriak duela 300 milioi urte sortu ziren.

kristalizatutakoan granitoak sortu ziren. Kuartzoa, feldespatok eta mikak osatzen duten arroka gogor horrek mendi potoloak sortu zituen Pirinioetan. Aneto-Maladetak, Perdiguero, Balaitous edo Neuville erraldoiak dira horren adibide. Mendi granitikoak erraz bereizten dira: kolore gris iluna, erliebe biribilduak eta ertz zorrotzak dira bereizgarri nagusiak.

2) Basamortu handi bat Pangean (duela 260-200 Ma)

Pangearen lurrazala pixkana-pixkana puskatzen hasi zen, eta haranak eta sakonune handiak sortu ziren. Horrekin batera, mendikate erraldoi hura izugarri higatu zen, eta erliebe nagusien oinean sedimentu pilaketa handiak eragin zituen. Landaredia urria zen, eta klima idorra, baina euria egiten zuenean, erruz egiten zuen, eta ibaiek sedimentu kopuru handia eramaten zuten. Horrela sortu ziren Triasiko garaiko errekarri, hareharri eta buztin gorriak. Pangeako mendiak erraldoiak izan ziren, bai, baina



Balaitous-eko granitoa ere duela 300 bat milioi urte sortu zen presio eta temperatura altuen ondorioz.



Castillo de Acher-eko erreka sedimentu gorriak.

milioi urte gutxietan higadurak desagerrarazi egin zituen.

Pirinio zaharraren desagertzea adierazten duten sedimentu gorri hauek Castillo de Acher, Vertice de Anayet edo Pico Arroyetas mendi gorri ikusgarrietan aurki daitezke.

3) Itsaso tropikal baten azpian (duela 200-40 Ma)

Pangea hainbat piezatan zatitzen hasi zen kontinente berriak sortuz. Irekiera horretan, pixkana-pixkana, itsasoak berriz estali zuen Pirinioen lurraldea. Iberia eta Europaren artean, adibidez, Pirinioen itsasoa sortu zen eta 120 milioi urteetan zehar itsaso horren historia sedimentuetan idatzia gelditu zen. Entziklopedia

erraldoi horren zati bat da geoparkeko flyscha, adibidez.

Fosilez beterik dauden arroka itsastar hauek (kareharriak, gehienbat) sortzen dituzte Nafarroako Pirinioetan kokatzen diren Ori, Hiru Erregeen Mahaia edo Auñamendi mendiak. Baita Pirinio zaharretik hegoaldera kokatzen diren mendikate karetsu erraldoiak ere: Bisaurin, Aspe, Collarada, Telera, Tendeñera, Cotiella, Turbon eta bereziki Monte Perdido handia, Europan dagoen kareharritzko mendi altuena. Mendi horien ezaugarri nagusia kareharri gris argia eta arroka pakete lodiak dira.

4) Talka handia (duela 50-5 Ma)

Iberiak europar kontinentearekin talka egin zuen, eta milioika urtetan zehar itsas hondoan metatutako sedimentuak deformatu eta altxatu egin ziren. Horiek eta horien azpian zeuden Pirinio zaharraren arrokek ere bai.



Ordesako mendiak Zumaiako flyscha sortu zen itsaso berdinean eta momentu berdinean sortu ziren, sakonera gutxiko plataforma batean.

20 milioi urtean zehar bi kontinenteen arteko espazioa 77 bat kilometro laburtu zen, urteko 1mm-ko abiaduran. Konpresio hori guztia egokitzeke arroak plastilina bezala tolestu ziren eta kasu askotan arroak puskatu eta unitate zaharragoak berriagoen gainean kokatu ziren geologian “zamalkadura” bezala ezagutzen diren egiturak sortuz. Gavarnieko zamalkadura da guztietan ezagunena. Deformazio egitura horiek eskala guztietan eta nonahi ikus daitezke Pirinioetan.



Duela 40 milioi urte, Pirinioak altxatu zirenean sortutako Tolesak Gavarnieko zirkuan.

5) Paisaiaren eraketa (duela 5-0 Mu)

Azaleratu zirenetik, kanpo eragileek Pirinioak zizelkatu dituzte gaurko mendiak eta bailarak sortzeko. Gaur ezagutzen dugun paisaia azken milioika urteetan izotzak eta urak egindako lanaren ondorioa da.

Denboran oso gertu, duela 60.000 Mu bakarrik, Pirinioetan 50 kilometro luzera zeukaten glaziarrek zeuden. Horiek izan ziren gaur egungo bailarak zizelkatu zituztenak. Ordesa, Pineta, Belagua eta Pirinioetako bailara guztiak gaur egungo Karakorum urrunaren glaziarren itxura zuten. Glaziarrek ia desagertu dira, baina urak oraindik kanoi sakonak higatzen ditu, kareharriak disolbatzen ditu lurrazalean eta pitzaduretan sartzen da. Izozten denean bolumena handitu eta arroak puskatu egiten ditu. Horrela sortzen dira pareta handien azpian kokatzen diren harri multzo erraldoiak.


Denbora kontua da. Egunen batean gaurko Pirinioak desagertu egingo dira. Gu ez gara hemen egongo, baina desagertu egingo dira, aurrekoak desagertu ziren bezala. ■■■

**PIRINIOETAKO
LURRALDEA ITSASO
BATEAN URPERATUTA
ZEGOEN, BI
KONTINENTE HANDIREN
ARTEAN**

**KANPO ERAGILEEK
PIRINIOAK ZIZELKATU
DITUZTE GAURKO
MENDIAK ETA
BAILARAK SORTZEKO**



Pinetako bailara glaziarra.



Gelifrakzioak pareta handien azpian sortzen dituen harri pilaketak.

Julian Rubio Urbietta, zumaiar bat Australian eta munduan



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ARGAZKIAK: JULIAN RUBIOK UTZITAKO MATERIALA

Zumaiatik apenas urrundu garenok, inguruetan bilatu eta aurkitu ditugu abenturak; beste batzuk, berriz, mundu osoan ibiliak dira, eta pozik kontatzen dituzte bizitakoak. Horietako bat dugu Julian.

1945ean jaio zen, Zunbilo kalean. Gurasoak Julian eta Dolores zituen; aita Gerra ondorenak ekarri zuen Zumaiara, Hotel Amayan zegoen ospitalera, eta hemen ama ezagututa, ezkondu Madrilera joan ziren bizitzera. Baina hura ez zitzaion gustatu amari, eta atzera Zumaiara bueltatu ziren; aitari ezizena ere geratu zitzaion, ordea, bidaia hartatik: Madriles.

Ama etxeko lanetan aritzen zen, eta aita Otto Holken baina kamarero ere ibiltzen zen tabernetan, sos batzuk irabazteko aldera. Hasierako Zunbilo kaletik Arritokietara joan ziren, Goiko Torre ondoko zinkunegitarren etxera (Amasenekoa); ordurako, jaiota zeuden Arritxu eta Julian bera, eta gero etorriko ziren beste 4 anaiak. Julian akordatzen

denez, inguruko etxabe askotan animaliak hazten zituzten: oiloak, txerriak, behiak, konejuak..., eta gogoan dauka, adibidez, nola jotzen zuten garia makinarekin Añezkoaren eta Kastorrenekoaren artean; umetako jolas eta ibilerekin ere akordatzen da: Goiko plazan eta azokan, udaletxeko arkupean, Arriketan... Etxerako "materiala" ere karreatzen zuten, batez ere sutarako: egurra hondartzetatik edo txirbila aroztegietatik, ikatza Moilaberriko trenbidetik... "Esku hutsik ez ginen bueltatzen orduan etxera!". Eskolaz galdetu diot: "Txikitan eskola batera joan nintzen, ume txikientzakoa, Harategiko kalera, eta irudipena daukat euskaraz zela; gero, Mertzedarioetara, eta handik Arrangoletara, haietan dena erdaraz. Etxean beti euskaraz egiten genuen, eta aitarekin erdaraz, ez zekien eta".

**"INGELESA
KORRESPONDENTZIAZ
IKASI NUEN, HAN. JOAN
NINTZENEAN EZ NEKIEN
IA EZER"**

1955ean, Rubio Urbietta sendia Arrangoletara aldatu zen, Casasbaratasera, eta 1957-1960 artean Julianek ikasketa profesionala egin zuen Virgen de Arritokietan (Alondegian); ikasketak bukatu orduko, Juaristi tailerrean, ofizinan hasi zen lanean: "Denetarik egiten nuen: pedidoak egin, fundizioetara joan, planoak atera eta abar". 1965ean itxi egin zuten, eta Azpeitian hasi zen lanean; gainera, lan egin bitartean, "delineante general" ikasi zuen, urrutitik, posta bidez: "Lan egin 10 ordu, etxera joan eta ikasi egin behar beste lau... Ederra gogoa!", baina atera zuen titulua.

18 urte zeuzkanerako alde egin nahi zuen Zumaiatik, baina aurretik soldadutza egin zuen, boluntario, Madrilen, abiazioan. Zergatik alde egiteko hainbesteko gogoa? "Hemengo ikusita neukan. Urteak lanean eta ez neukan dirurik. Orduan bestela zen: dirua amari, eta hark paga. Amak ere joateko esaten zidan: 'Joan hadi, eta etorri behar baduk, hau beti hemen egongo duk'. Zerbait diferentea ikusi eta ikasi nahi nuen, eta ez naiz damutzen". Osaba-izebak zeuzkan Hego Afrikan, eta hara



Rubio Urbiet familia, osorik, 1957 inguruan. Ezkerretik eskuinera, Arritxu, Pello, Dolores (ama), Luis Mari (besoetan), Julian (atzean), Julian (aita), Fernando (aurrean) eta Mikel Mari.

joatekotan zela, haiek esan zioten egoteko pixka bat, Australiara joan behar zutela eta.

Hogeita bost urterekin, 1970ean, han abiatu zen, Australiara. Hasieran, automobilgintzan aritu zen lanean, Chrysler-en, baina gero lan mekaniko eta errepikakorretan jarri zuten, eta aspertu egin zen. Orduan, beste lau mutilekin batera, abentura bati ekin zion: Australian zehar bidaiatzea, tartean lan eginez (fruta biltzen, tabakoa jasotzen...); Julianek dioenez, erraza omen zen lana aurkitzea, eta horretan laguntzeko liburuak ere bazeuden. Julianek garbi zeukan bidaia hura non

amaitu nahi zuen: meategiren batean lanean. Azkenean, lortu ere egin zuen hori, minetako lokomotoren freno sistemak konpontzen hasi baitzen lanean, 1972an, atari zabaleko munduko burdin meategi handiaren. Gogoan dauzka laneako lokomotora handi haiek: “3.600 zaldi zeuzkaten, eta hiru kilometro luzeko bagoi ilarak eramaten zituzten, mineralarekin; haien freno nagusia konpontzeko, 40 orrialdeko formularioa bete behar nuen, txekeatuta”. Enpresak bizitokia jartzen zien, minimoa ordaintzen zuten, eta hortxe aurretzen zuten dirua. Zumaiarekin loturaz galdetu diot, nola zekien hemengo berri: “Karta bidez, hilean behin

edo. Telefonorik-eta ezer ez”. Eta nola moldatzen zen ingelesez?: “Korrespondentziaz ikasi nuen, han. Joan nintzenean ez nekien ia ezer, hitz batzuk besterik ez”.

Han inguruan bidaia batzuk egin zituen (adibidez, Malaysiara), baina hurrengo bidaia handia 1978an hasi zuen, Zumaiara bueltan, 6 hilabetean: hasieran, itsasontziz eta hegazkinez, Bali, Java, Sumatra, Thailandia, Birmania, India eta Nepal ezagutu zituen, eta han Magic Bus izeneko autobus berezi bat hartuta, Londreraino joan zen, bidean geldialdiak eginez, hainbat herrialdetatik pasata (Afganistan, Iran, Turkia,



Julian aita kamarero ere ibiltzen zen, eta horregatik dago hain elegante, zuriz, erdian. Julian eta Arritxu anai-arrebak aurrealdean daude, Elgoibarreko UMORE ONAkoekin eta beste zumaia batzuekin.

Grezia, Jugoslavia...).

Ingalaterran itsasontzia hartu eta Santanderrera joan zen, eta handik Zumaiara, trenez. Inori ez zion abisatu bazetorrenik,

eta estaziotik, motxila handia bizkarrean, oinez etorri zen Arrangoletako etxera. “Ni izango nintzen lehen zumaiaarra galtza motzekin ibiltzen,

orduan helduek ez zituzten janzten”, dio barrez. Sei urteren ondoren, ez zuen alde handirik nabaritu herrian: artean txikiteoa egiten zen, jendea gora eta behera Erribera kalean...

SEÑAS PERSONALES.-(SIGNALEMENT)	
Profesión (Profession)	Delicadea
Estado civil (Etat civil)	Soltero
Lugar y fecha de nacimiento (Lieu et date de naissance)	Zumaya Guipúzcoa 24 Febrero 1945
Domicilio (Domicile)	América
ESPOSA (épouse)	
Firma (Signature)	[Signature]
Lugar y fecha de nacimiento (Lieu et date de naissance)	
HIJOS MENORES DE 15 AÑOS (Enfants de moins de 15 ans)	
NOMBRE (prénoms)	EDAD (âges)
SEXO (sexe)	

CONSULADO GENERAL DE ESPAÑA

Firma (Signature)

El Cónsul de España (Le Consul d'Espagne)

AMÉRICA

SYDNEY

1983

Erabilitako pasaporte guztiak gordeta dauzka Julianek, hainbat herrialdetako zigiluz bete-beteak. Hau da horietako bat.

Zumaian hilabete batzuk pasata, berriz ere Australiara bidean jarrita, Israelera joan zen, eta bi hilabete egonaldia izan behar zuena zortzira luzatu zen, dokumentazioarekin arazo burokratikoak izan zituelako; justu-justu iritsi zen Australiara, bisatua bukatu baino lehen. Berriz ere zenbait hilabetez burdin meategian lan egin ondoren, beste bidaia handi bat prestatzen hasi zen 1983an: Ushuaiaraino (Argentinaren hego-hegoan, Patagonian), urtebetean; baina behin abiatuta, bi urte iraun zuen



Estrasburgora ere iritsi zen 2006an, mobilizazio batean, beste zumaia batzuekin, eta LAB sindikatuaren aldizkariko portadan azaldu ziren Bakarne Gorostola eta biak.

bidaia hark, eta hurrenez hurren bisitatu zituen Zeelanda Berria, Cook uharteetara, Tahiti, Estatu Batuak eta Amerika oso-osorik goitik behera, ia herrialde guztietan geldialdiak eginda, beheraino, eta gero atzera gora egin zuen, Brasil, Venezuela, New York eta Londres, Zumaia bueltatu aurretik. Ez da erraza laburtzea begiek ikusitako guztia: naturaren mirari ikusgarriak, lehengo zibilizazioen hondakinak... Kuelap du bereziki gogoan, Perun, inpresionatuta utzi zuelako toki hark. “Peligrosoena, dudarik gabe, Kolonia; eta Perun, behin, komisaria bateko kalabozoan egin nuen lo, klean egitea arriskutsua zelako”.

ere iritsi zen, eta han artean inork gutxi zapaldutako parajeak ezagutu zituen. Han zegoela, 1989an Antartikara joateko espediziorako paperak bete zituen; hasieran onartu zuten, baina jende asko apuntatu zela eta, bigarren pasean kanpoan utzi zuten. Australia bueltatuta, urte meategi batean aritu zen, mantentze

Zumaian egonaldia egin ondoren, atzera Australiara bueltatu zen 1986an, baina aurretik Nepalen geldialdia egin eta beste zumaia batzuekin Himalaia aldean ibili zen.

Australiara bueltatuta, eta lan eginda, Tasmania aldera

lanetan. Baina 1990ean Zumaia bueltan etorri zen, arrazoari garrantzitsu batengatik: “Aita gaixorik zegoen, eta amak esan zidan bizirik ikusi nahi banuen, etortzeko. Garaiz iritsi nintzen”. Harrezkero, ez du egin lehengo bidaia handirik, “Ikusi beharrekoa ikusita daukat”, dio, irribarretsu, eta gaur egun Nafarroako iparraldean daukan baserriaren eta Zumaia artean bizi da, nahikoa entretenimendurekin.

Bidaietako milaka diapositiba omen dauzka, eta dena dokumentatuta, paperekin, noiz eta non izan zen, liburuak eta liburuak idazteko adina material, baina denborarik ez. Tentatu ere egin nau, ea ez ote nintzatekeen animatuko idaztera. ■



Julian Rubio, elkartu ginenean, 2019ko urrian.

KULTURA

Gordetakoak bistara

TESTUA ETA ARGAZKIA:

MARIA MAYA MANTEROLA

“Indarkeria matxistak emakume guztiok gauzka jo puntuan”. Hala dio Zumaiako mugimendu feministako kide Aratz Zearretak. Indarkeria horren inguruan gogoeta egiteko ariketa planteatu zuten iaz, eta emaitza horiek kolektibizatzeko baliatu zuten azaroaren 25a, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna. Jasandako min horrekin geratu ordez, ariketari segida emango diote aurtengoan: “Minak badaude, zauriak badaude, orbanak badaude. Baina baditugu tresnak osatzeko, eta guk bizi nahi dugu”.

Kolektibo bezala egin nahi dute aurrera, sare horrek ematen duen indarrarekin. Hala, jendartean dauden gatazkak salatzeaz gain, norbere barruko minak adierazteko bitarteko gisa ulertzen dute artea. Ideia hori abiapuntutzat hartuta antolatu dute Zumaiako zenbait emakume artistaren lanak bilduko dituen erakusketa. *Kontatu* lelo hartuta egin zuten dinamika iaz, eta *osatzea* izango da aurtengo erronka.

Kontatu dinamika izandako harrera ekarri du gogora Zearretak: “Konturatzen zara zenbat jendeak hustu zituen barrenak, eta oraindik ere ari zaizkigu gauzak iristen”. Jasotako guztiari leku bat eman nahi izan diote, Zumaiako



Aratz Zearreta eta Mireia Segura.

emakumeen testigantzei, alegia. Aurtengoan ere begi onez jaso dute artistek proposamena. Deialdi irekian, ordea, ez dute erantzunik jaso, Zearretaren arabera, “norberak bere burua artista bezala ikustea zaila” delako. Hala eta guztiz ere, jotako ate guztien baiezkia jaso dute.

Zauriak “mimatu” egin behar dira, Mireia Seguraren arabera. Erakutsiko diren hamar artisten lanetako bat sortu du. Ehungintzan eta joskintzan aritzen da, Mai Kyk dendan, eta hainbat erakusketatan hartu du parte. Lehen ere elkartu izan dira artisautzaren bueltan lan egiten duten emakumeak: “*Haria galtzen* izeneko erakusketa egin genuen, geure lana bultzatzeko”, dio Segurak.

Ehungintzaren ofizioa galtzen ari dela, eta, horrez gain, uste du emakumezkoei bastidoreen atzean lan egitea egokitu zaiela: “Gizonezko jostun handien talentuaz hitz egiten da; ez, ordea, emakumezkoak ezkutuan egindako lanaz”.

Ehuntzeko kontzentrazioa beharrezkoa da Segurarentzat, baina behin horretan jarrita, distrazioa sartzen da jokoan. “Bateragaitzak direla dirudi, baina hala da. Kurioa da. Sortze prozesu horrek guztiak ere bakera eramaten du sortzailea”, Seguraren arabera.

Kobreko haria erabilia hasi da erakusketan izango duen pieza sortzen. “Oso material indartsua da, gogorra”. Pieza ikusteko, ordea, hilaren 21era arte itxaron beharko dugu. ■

AGENDA

DEIALDIAK

URRIA-ABENDUA

Jabetze Eskolako ikastaroak.
berdintasuna@zumaia.eus
Autodefensa feminista (3 larunbat goiz, Torreberrian)
Demolición del amor romántico (5 asteazken arratsalde, Hogarrean).

AZAROAK 19-24

Xixili eguna ospatzeko musika gitaraua.

AZAROAK 26-ABENDUAK 3

Euskararen Astea.

AZAROAK 27-ABENDUAK 1

XVIII. Klarinete Astea.

ERAKUSKETAK

URRIAK 31-AZAROAK 17

Distira argazki elkarte. Erakusketa kolektiboa.

AZAROAK 21-ABENDUAK 8

Kontatu-Osatu, Zumaiako Mugimendu Feminista.

AZAROA

7 OSTEGUNA

Zine forum: *El despertar de las hormigas*. Zuz.: Antonella Sudasassi Furniss.
Aita Marin, 22:00etan.

8 OSTIRALA

Ipuin kontaketa: *Liburutegi automatikoa*, Apika (5-8 urte).
Haur liburutegian, Alondegian, 17:30ean.

10 IGANDEA

Antzerkia haurrentzat: *Mari eta gaileta fabrika*, Eidabe.
Aita Marin, 12:00etan.

13 ASTEAZKENA

Meditazio saioa: Gune elkartearen eskutik.
Forondan, 19:30ean.

14 OSTEGUNA

Zine forum: *Blade Runner* Zuz.: Ridley Scott.
Aita Marin, 22:00etan.

15 OSTIRALA

Antzerkia: *Babesleku arrotzak eta animalia basatien hotsak*, Rubik.
Aita Marin, 22:00etan.

19 ASTEARTEA

Dokumentala: *OSGI gorroto-delituei begirada orokorra*, Aldarte.
Oxford aretoan, 18:00etan.

Entzunaldia: Musika eskolaren eskutik.
Komentuan, 18:30ean.

21 OSTEGUNA

Kalejira: *Musika eskola+ ZUMB banda*.
Herrian zehar, 18:30ean.

Zine forum: *El hotel a orillas del río*. Zuz.: Hong Sang-soo.
Aita Marin, 22:00etan.

22 OSTIRALA

Kontzertua: *OCP slam & ZUMB*.
Kofradian, 22:00etan.

23 LARUNBATA

Abesbatzan kontzertua: *San Pedro eta Luberri abesbatzak*.
Komentuan, 19:00etan.

26 ASTEARTEA

Aurkezpena: *Euskaraldia*, Urola
Kostako emaitzen azterketa, Soziolinguistika Klusterra.
Oxford aretoan, 18:00etan.

27 ASTEAZKENA

Kontzertua: *XVIII. Klarinete Maratoiaren inaugurazioa*.
Komentuan, 19:00etan.

Solasaldia: *Gazteak euskal kulturgintzan: ekarpenak eta galderak bertsogintza mundutik. Eta espiritualtasuna zer?* (Mikel Artola), Gune elkartearen eskutik.
Lekuaxxxx, 00:00etan.

28 OSTEGUNA

Sarien banaketa: *Julene Azpeitia lehiaketa*; ondoren **kontzertua:** *Maite Larburu*.
Oxford aretoan, 19:00etan.

Kafe-pintxo-pote musikala: *Klarinetea eta...*
Valentin Manterolaren estudioan, 20:00etan.

29 OSTIRALA

Txikientzako kontzertu berezia: *Amat-Studio*.
Oxford aretoan, 17:30ean.

Bertsoak+bakarriketa: *Erradikalak ginen*.
Oxford aretoan, 20:00etan.

30 LARUNBATA

Kontzertua: *Klarinete laukoteen lehiaketa*.
Komentuan, 16:00etan.

Kontzertua: *Klarinete laukoteen laborategikoa*.
Komentuan, 18:30ean.

Belaunaldi berriak izendatzen



MAITASUN KEINU BAT BESTERIK EZ

Egilea: Hasier Arraiz
Argitaratzailea: EREIN
Argitaratze urtea: 2019
Orrialdeak: 296
Generoa: Saiakera



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Irakurgaiak aukeratzeko orduan, denetarikoa izan daitezke arrazoiak, nire kasuan gehien-gehienetan, eleberriak izaten dira aukeratuak, egunerokotasunaren zurrumbilotik aldentzeko botika eraginkorrena baitira.

Gaurkoan, ordea, bestelako proposamen batekin natorkizue, saiakera batekin, eta aitor dut ez naizela batere saiakerazalea, baina, oraingoan, Hasier Arraizek liburu bat argitaratu zuela jakin nuenean, eta berau egungo euskal literaturaren inguruko gogoetak osatzen zutela jakinda, ez nuen zalantzarik izan irakurri beharreko liburu baten aurrean nengoela. Jendeak euskal literaturaz zer kristo pentsatzen duen jakiteko, behintzat.

Hasier Arraizen *Maitasun keinu bat besterik ez* saiakera bi zati nagusitan banatzen da.

Lehen atalean, idazle belaunaldi bat aurkezten digu Arraizek, 70eko hamarkadan jaiotako idazleena,

salbuespenak albuespen, eta egun jardun literario oparoa dutenak. Kirmen Uribe, Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Mikel Peruarena Ansa, Unai Elorriaga, Ixiar Rozas, Karmele Jaio, Ur Apalategi, Lander Garro, Uxue Alberdi eta Katixa Agirre hartzen ditu belaunaldi berriko idazleen erakusgarri gisa, eta Uribe kokatzen du guztien buru. Bertan, beraien lanen errepaso bat aurkezten digu Hasierrek, baina batik bat Kirmen Uriberen lana zehaztasun gehiagoz aztertzen du.

Bigarren zatian, ostera, hainbat gogoeta plazaratzen ditu, garaiaren egoera politikoaz eta horren barruan kontakizunek duten garrantzi politikoaz.

**BELAUNALDI BAT
AURKEZTEN DIGU
ARRAIZEK, 70EKO
HAMARKADAN
JAIOTAKO IDAZLEENA**

Bertan, Hasier Arraizek proposamen bat luzatzen digu irakurleoi, edo hobeto esanda, idazleei, non aldarrikatzen duen euskal herriak nazio izate helburuan bizi duen etenalditik irteteko, nazio kontakizun berri bat behar duela, eta kontakizun hori literaturatik (kulturatik) eman daitekeela proposatzen du.

Liburuan azaltzen diren bi atalek nahiko zeresan eman dute euskal kritikarien artean: alde batetik, idazle belaunaldi berri bat izendatzea gehiegizkotzat jo dute batzuek, belaunaldi kontzeptuak zalantzak sortzen dituelako, batez ere, adin tarte berekoak izanagatik, idazleen artean ez dagoelako diskurtso literario eta estetiko partekaturik; eta, bestetik, nazio erakuntzan literaturak (edo edozein arte diziplinak) egin dezakeen ekarpenaren aurrean, sormen prozesuaren araztasuna aldarrikatzen dute, hots, sormen prozesu oro edozein ideologia edo ekintza politikitik haratago dagoela. ■

Klarinete Maratoia: atzera begiratu eta...



IBON MANTEROLA

Dirk Brossék piano eta klarinete baxuarentzat idatzitako *Elegy* obra Klarinete Maratoian entzun nuen lehen aldiz. VI. Klarinete Maratoia zen (2007). Damián Hernández pianoan, Carlos Casadó klarinetean. Musika Bandaren lokaleko kontzertu hura primizia izan zen, geroxeago *Just for fun* diskoa atera zutelako. 2009an, VIII. edizioan, Gerald Finziren *Five Bagatelles* eta *Romance* ezagutu nituen (Casadók eta Camerata Cambrensis-ek jo zuten). Mozarten *Gran Partita* ere Maratoiari esker entzun nuen lehen aldiz, XI. edizioan. Joxean Pascualek zuzendu zuen dozena bateko musikari profesionalen taldea.

Musika Bandako kide modura ere Maratoia era berezian gozatu izan dut. Adibidez, Víctor Babin-en *Hillandale Waltzes* jo genuen XIII. edizioan (2014). Banda eta klarinetearentzako bertsio moldatua, estatu espainiarrean lehen aldiz, Zumaian jo genuen. Zuzendaria Mikel Emezabal izan zen, eta bakarlaria, Casadó. Oscar Navarroken

Klarinetearentzako 1. kontzertua, berriz, 2011n jo genuen, Luis Orduñak zuzenduta. Real Filharmonia de Galicia klarinete bakarlaria etorri zen, Vicente López. Eta 2015ean Navarroken bigarren kontzertua jo zuten Casadók eta Klarinet.eus taldeak, Fernando Urainek zuzenduta. Klarinet.eus Euskal Herriko klarinete irakasleez osatua dago eta Maratoiaren babesean garatu da.

Herriko musikazale askorentzat, Maratoiko emanaldiak gozamen hutsa izan dira 2002tik hona. *Mini Concerto* (Jacob), *Dante Dances* (Welcher), *Trio Op.26* (Muczynski), *Intermezzo for clarinet in memory of Benny Goodman* (Tfasmans)... klarinetearentzako idatzitako musika zoragarria entzun dugu

**KLARINETE MARATOIA
AITZAKIA ONA IZAN DA
ERA ASKOTAKO
GANBERA MUSIKA
LANTZEKO**

herrian bertan, maila handiko musikariek interpretatua: Urval Ensemblek, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikariak, eta abar. Sona handiko musika jaialdien pare, baina etxe ondoan!

Klarinete Maratoiari esker, guraso ugari ikusi du seme-alabentzako interesgarria dela musikaren mundua. Klarinete Laukoteentzako Lehiaketan urtero ikusten dugu zer garrantzitsua den umeen eta nerabeen heziketa musikala.

Herriko musikari askorentzat ere Klarinete Maratoia aitzakia ona izan da era askotako ganbera musika lantzeko. Horren adibide, Valentín Manterolaren estudioan antolatzen den Pintxo Pote Musikala: biltzen garen musikari eta entzuleentzat, urteroko zita kuttunetako bat da.

Laguntzaile taldea inguruan dutela, Marixi Sesmak eta Carlos Casadók garatzen duten musika hezkuntzako egitasmo aitzindaria eta paregabea da Klarinete Maratoia. Datorren azaroaren 27tik abenduaren 1era, XVIII. edizioa! ■

Artisauen ordua



JUAN LUIS ROMATET

Ez dut gogoan porroian izan zen edo edalontzian. Nik dudan punteriarekin, porroitik ateratzen den txorrostak ahoan baino kamisetan amaituko du. Beraz, edalontzian izango zen. Eta gaseosarekin, hori seguru. Ez dut uste nuen adinarekin (ez galdetu zein zen, ez naiz akordatzeko) zerbeza gasik gabe emango zidatenik. Benoa, gauza da garagardoa probatu nuen lehen aldia aitarekin izan zela, etxeko sukaldean. Hain mozoloa nintzen, harraskara hurreratu nintzen botagura izan eta barrenak hustu behar banituen ere. Baina ez, gustatu zitzaidan, zeinek esango zidan hori niri. Hori bai, norbaitek inkesta bat egin eta edari gogokoena zein dudan galdetzen badit, ura dela erantzungo diot; Himalaiako glaziarretatik hartutako ura, hain zuzen ere.

Tabernetan aurki daitekeen garagardo eskaintza esponentzialki handitu da azken urteotan. Modan dago zerbeza edatea. Akaboa San Miguelen diktadura, edo Kelerrena (Jon Pagola kazetari eta musikazaleak dioten bezala, *Killer*, hiltzailea), edo Heinekenena, zerbait txukunagoa hartu nahi genuenean. Orain, garagardoazaleok zerbeza mota ugariaren artean aukera dezakegu: artisauak eta industrialak, arinak eta alkohol maila handiagokoak; beltzak, tostatuak eta IPAK. Sodoma eta Gomorra garagardoaren munduan. Artisauak garestiagoak dira, eta hori tentuz ibili behar izaten dut: pare bat garagardo artisau hartu, eta jarraian ohikoetara. Bestela, igande goiz askotan neure buruari egiten diodan galdera bera errepikatuko dut behin eta berriro diru zorro hutsa eskutan dudala: “Nor ez nuen gonbidatu atzo?”.

Hasieran parrandarako edota kontzertuetarako erregaia zena plazer txikia bihurtu zait. Tabernetara joan, barra gainean izaten dituzten botilak eta latak aztertu, aditua izango banintz bezala garagardo mota bakoitzaren inguruko azalpenak eman aspertu aurpegia duen tabernariari, edalontzia argi aurrean jarri eta edariaren koloreaz debatitu, usaindu, ahora eramane eta bueltaka eduki lupuluaren garraztasuna hobeto dastatzeko, eta barrura! Eta amaitutakoan, zeremonia osoa berriro errepikatu beste zerbeza batekin. Kakahuete edo antzekoekin lagunduta bada, hobeto. Postureoa? Pixka bat bai, egia esan.

Edozein tabernetara sartutakoan, oporretan bereziki, galdera bera egiten diot tabernariari: zer garagardo dituzue? Kuadrillako lagun batek egindakoa dela? Aurrera. Teideko harrien artetik pasatzen den ura erabili dutela zerbeza egiteko? Proba dezagun. Edaria ahora eramanean ogi zaporea sumatzen duzula? Ekarri bat hona. Noizean behin, baina, alkoholaren lurrinak burmuinera heldu zaizkidalako edo, defentsak jaitsi eta kaña normal bat eskatzen dut. Hor sor daiteke krisia, tabernariak aurrean Cruzcampo bat jartzen dizunean. Horren aurka ez dago zer eginik. ■■■

**EDOZEIN TABERNATARA
SARTUTAKOAN
GALDERA BERA EGITEN
DIOT TABERNARIARI:
ZER GARAGARDO
DITUZUE?**



**Casa
BASUSTA**
LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etkez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11
www.floristeriabasusta.com



ARDANTZABIDE
ATSEDENA

Hilabete hontako
eskaintza
GALILEO
besaulki motorduna

599€


163 68 96 108

Txomin Agirre, 4 · 20750 Zumaia · 943-86 25 32
ardantzabide@gmail.com · www.ardantzabide.com

f i

AZAROAK 25

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA



Grafikoaren ideia originala:
Amnistia Internazionala

Grafikoaren diseinua eta itzulpena:
Zumaiaiko Mugimendu Feminista

Zure egia, guztion ardura.



Zumaiaiko Udala